

Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkartea



Hemen zaude: Hasiera » Aisia » “Sagardoaren Lurraldea elkarrekin bultzatzea da gure erronka”

“Sagardoaren Lurraldea elkarrekin bultzatzea da gure erronka”

noaueuskararenaterpe 2017-01-11 Aisia, Ekonomia, Ingurumena, Jendartea, Kultura 0 iruzkin

Txotx garaiari, 24. Sagardo Berriaren Eguneko ospakizunei aurkezpen ekitaldi batekin eman die hasiera Usurbilgo udalerria ere kide duen Sagardoaren Lurraldeak, eguerdian Astigarragako Sagardoetxean. Hilabeteotan gure inguruko sagardotegietan kupeletan dastatu ahalko ditugun sagardoen nondik norakoak azaldu dituzte. Joxe Angel Goñi sagardogileen bozeramailearen esanetan, sagardo eleganteak izango omen dira. “Kalitate handikoak, gorputz handikoak, kolore gehixeago dutenak, oso aromatikoak, afrutatuak, txinparta fin eta politekoak, edan errazak eta amaiera lehor eta ederrekoak”, zioen.

Ekoizpena iazko antzekoa izan da, guztira 12,5 milioi sagardo litro dastatu ahalko ditugu. Aldiz, hamaseigarren urtez jarraian, iraila hasieran Gipuzkoako 14 sagasti barietate ezberdinetan eginiko kontrolari esker jakin ahal izan dute, ekoizpena irregularra izan dela, “zonaldea eta sagar barietateen araberakoa”. Sagarraren heldutasuna ere atzeratu egin omen da, “iraila bukaera eta urriaren hasieran lortu du heldutasun puntua”.

Halere, baserritarrek urte osoan zehar eginiko lanari esker kalitate bikaineko sagardoa izango dugu aurrean, Ainhoa Aizpuru Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko foru diputatuak gogorarazi nahi izan duenez. Sektorea eskertu du, “kalitatezko produktu baten alde lan egin eta lurraldearekiko konpromiso irmo eta serioa duelako”. Konpromiso irmo horretan berretsi da bera ere, sagardoaren kalitatea bermatu eta hobetu nahi baitu Aldundiak. “Bertako sagarra sustatu nahi dugu”, zioen gaurkoa txotx irekiera ekitaldian. Ildo horretan kokatu du aste hasieran aurkeztu zuten “Euskal Sagardoa”, ehuneko ehun bertako sagarrarekin eginiko sagardoaren marka berria. Helburu hori bete nahi dute; sagardoa gurtziz bertako sagarrarekin ekoiztea.

Ildo beretik mintzatu da baita Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako nekazaritza, arrantza eta elikagai politikako sailburuordea. “Bada etorkizunean lan izugarri bat, sektore honek etorkizun oparoa izan dezan. Horretarako oinarriak hemen ditugu”, zioen. Aurrera begirako erronken artean kokatu ditu, bertako sagarra, gure gastronomiaren eta sagardoaren prestigioa edota merkaturatze sistema berriak sustatzea. Bide horretan, elkarlanaren garrantzia azpimarratu du. “Denok helburu berarekin gabilta, gure indarra geldigaitza den mugimenduaren hasieran gaude”, zioen.

idatzi bilaketa irizpidea

bilatu

Eguraldia Usurbilen

Asteazkena



Agenda

URT 26 og.	6:25 Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen
	18:00 “Usurbil 0.0” eredurako ekarpen ...
URT 27 ol.	16:00 2017ko Argia Sarien banaketa
	20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko...
	22:00 EH-ko 9. Mus Txapelketako kanpor...
URT 28 ir.	9:30 Eskubaloia Kiroldegian
	9:30 Futbola Haranen
	10:30 Ate irekien eguna Udarregi Ikast...
URT 29 lg.	19:00 Kantu-jira
	8:30 Irisasi BTT 2017 “Hotzak akabat...

Egutegia ikusi →

Komunitatea

Usurbil Gure Esku Dago 2017-01-23

Herri Galdeketa aldea, 500 sinadura dagoeneko!!

Maiatzak 7ko Herri Galdeketa aldea 500



Usurbil Gure Esku Dago 2016-11-21

2017: HERRI GALDEKETA USURBIL? Erabakitzeko Eskubidearen aldeko olatu indartsu bat sortzen ari da Euskal Herrian eta



Juanjo Lertxundi 2016-10-29

ZER GALTZEKO PREST ZAUDE? Irabazi nahi baduzu, jolastu beharra daukazu eta jolastean, galtzeko arriskua daukazu.



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-16

Eskualdeko elkarlanaren alde

Sagardogintza, lankidetzeta eta elkarlanaren eredu ezinhobea dugula azpimarratu du Zorione Etkezarraga, Astigarragako alkateordeak. Ekitaldira bertaratu diren, Usurbil, Urnieta eta Hernaniko ordezkariak begira azpimarratu du etorkizuneko erronka nagusietakoa izango dena; “Sagardoaren Lurraldea elkarrekin bultzatzea da gure erronka, elkarlanean, guztion ahaleginean”.

Eneko Atxa sukaldari ezagunak izan du txotx irekierari hasiera emateko ohorea. Ohoreaz gain, berarentzat erantzukizun handia zela zioen, “bai baitakit sagardo txotx bakoitzaren atzean zer egoten den. Istorio politak baina gogorrak ere egoten dira. Denboraldi luzeak, krisiak jotakoak izango dira asko eta asko, ez da erraza izaten”. Gaurkoan ekoizleen bozeramaile gisa aurkeztu nahi izan du bere burua, haiei laguntzeko tresna gisa. Asteazken honetakoa ” hainbeste maite dudan neure lurralde eta kultura goraiatzeko eguna dela” oroitarazi nahi izan du.

Balio turistiko itzela

Sagardoak eta sagardoaren kulturak duen balio turistikoa azpimarratu dute, irekiera ekitaldira gerturatu diren Foru Aldundiko eta Eusko Jaurilaritzako ordezkariak. Bere diskurtsoa erdara hutsean egin duen Alfredo Retortillo, Eusko Jaurilaritzako Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo sailburuaren esanetan, eskualdearen egituratzean elementu garrantzitsua da sagardoa, baina baita turistentzako produktu erakargarria ere. “Oso aho zapore ona uzten du” eta probatzen duenak errepikatu nahi izaten du. Asko dira Retortilloren esanetan, Euskal Herritik nahiz atzeritik geure inguruak ezagutzera datozenak, sagardoak eta txotx denboraldiak erakarrita. Azpimarratu du, azken urteotako sagardogietako bisitaz gain, errekurtsu turistiko gisa zabaltzen eta indartzen doazela sagardoaren inguruko ekimen eskaintza.

Ildo beretik mintzatu da Denis Itxaso, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo diputatua ere. Sagardoa “errekurtsu turistiko ezinhobea dugu” zioen. “Sagardoak eta txotx denboraldiak berezi egiten gaitu”, gaineratu du. Txotx denboraldiak eta sagardogintzak Gipuzkoako turismoari egiten dion ekarpen garrantzitsuen bi adibide aipatu ditu; batetik, turismoarentzat hilabete garrantzitsuenak ez diren hauetan, “beste erakargarritasun puntua eskaintzen du” sagardoaren kulturak eta turismoak Gipuzkoan utzitako aberastasuna herrialde osoan zehar modu orekatuagoan banatzen lagundu dezake.



Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



Utzi zure iruzkina

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Iruzkin

Sutegi Udal Liburutegian ere, ZUMETA BERRIKUSTEN!

Uztailaren 15etik Urriaren 16ra bitarte, Irungo



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-05

VIII Euskarazko literatura topaketa: Atertu arte itxaron

URRIAK 19an (asteazkena), arratsaldeko



Juanjo Lertxundi 2016-08-29

Esaldi laburra barneratzeko

” Zorionsuago izan nahi baduzu, ez zaitez inorekin alderatu “



Juanjo Lertxundi 2016-08-19

Esaldi laburra barneratzeko

” Emozioak ez dira ukatu behar, ezagutu eta kudeatu baizik”



Sutegi Udal Liburutegia 2016-07-14

Hemen da FRESKAGARRIAK 2016!!!

Jada eskuragarri dago Buruntzaldeko Liburutegietan 2016. urteko



Sutegi Udal Liburutegia 2016-06-08

J.A. ARTZERREN UNIBERTSOA... LIBURUTEGIAN ERE IKUSGAI

Ekaina guztian zehar, Usurbilgo Potxoenea



Juanjo Lertxundi 2016-05-29

Erabaki nuen eta ikasi nuen

Eta horrela, asko itxaron ondoren, beste edozein egun baten gisako egun batean



IKUSIENAK

BERRIENAK

IRUZKINAK

ARTXIBOA

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoan alaba jaio da Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik

Usurbilgo gazte eragileak erretratatu ditu Ernaik Gazte eragileekin bildu eta


40 urte bete dira, ikurriña udaletxeko balkoira itzuli zenetik Lau hamarkada bete dira, ikurriña

Ikastetxeetako danborradek aurre hartu diete, San Sebastian Eguneko ospakizunei

Txokoaldeko tren geltokiko eraikinean, kultur proiektu berritzaileak garatzeko udal

Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak



Izena *

E-posta *

Webgunea



CAPTCHA Code


*

Iruzkina bidali

« Aurrekoa

Hurrengoa »

Azken argazkiak



Albiste nabarmenduak



1964ko idi-dema, NO-DO delakoan RTVE-ren artxiboetan harribitxi hau topatu dugu: 60ko hamarkadan



Erraustegiaren aurkako manifestazioa iruditzen
Milaka gipuzkoar batu ditu Erraustegiaren Aurkako



Aginaga, Tapiaren inspirazio iturri
2008ko udazkenean, erakusketa ipini zuen Aginagako eliza zaharrean. Sei



Kantua, gabonen eta oporren abiapuntu
Gabon giroa heldu zaigu Usurbila, ohi bezala, ikasleen eskutik. Aginagako

Webmapa

- › Agenda
- › Aldizkaria
- › Argazkitegia
- › Komunitatea
- › Merkatu txikia
- › Noaua TB
- › Noaua!
- › Zorion agurrak
- › Zerbitzuak

Artxiboa

Artxiboa



Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf: 943 360 321 erredakzioa@noaua.eus
© 2017 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

